

IRAGARKIA

169. ALDIZKARIA - 2026ko abuztuaren 27a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK BERRIOBEITI

Ordenantza fiskala, hobariak arautzen dituen lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren zergan. Behin betiko onespena

Berribeitiko Udalak, 2026ko maiatzaren 5ean egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen ordenantza fiskal bat, hobariak arautzen dituen lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren zergan.

Hasierako onespenaren erabakia argitara eman zen 2026ko 116. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 16an, eta jendaurreko aldi inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, behin betiko onetsi, eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan. Hori guztia, bat etorritik uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

Berribeitin, 2026ko abuztuaren 6an.—Alkatea, Félix Remírez Hoyos.

ORDENANTZA FISKALA, HOBARIAK ARAUTZEN DITUENA BERRIOBEITIKO UDALAREN LUR-ONDASUNEN GAINEKO KONTRIBUZIOAREN ZERGAN

1. artikulua. Izaera eta helburuak.

Lur-ondasunen gaineko kontribuzioa zuzeneko tributu erreal bat da, kargatzen dena ondasun higiezinaren balioaren gainean, jarraikiz xedatuta dagoenari martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko II. kapituluko 133.etik 145.era bitarteko artikuluetan, biak barne (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea).

Foru lege horren 140.4 artikuluan araututa dago toki-erakundeek beren ordenantza fiskaletan ezar dezaketenek hobaria, eta, hain zuzen, ordenantza honek hobari hori arautzen du.

2. artikulua. Hobariaren onuradunak.

2.1. Hobaria ohiko etxebizitzaren gaineko kontribuzioan, familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren titular diren subjektu pasiboendako edo gurasobakartasun egoeran dauden subjektu

pasiboendako, bai eta pentsio ez-kontributiboak, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko errenta jasotzen dutenendako ere.

Ohiko etxebizitzaren gaineko zergaren guztizko zenbatekoan hobari bat izanen dute familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren titular diren subjektu pasiboek edo gurasobakartasun egoeran dauden subjektu pasiboek, bai eta pentsio ez-kontributiboak dituztenek zein errenta bermatua edo bizitzako gutxieneko errenta jasotzen dutenek ere. Hobaria ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera aplikatuko zaie.

Hala, ohiko etxebizitzatzat hartuko da bizitegi-erabilerako hiri unitatea, helburu duena soil-soilik erantzutea subjektu pasiboaren eta haren familiaren etxebizitza premia iraunkorrari.

2.2. Hobaria ohiko etxebizitzaren gaineko kontribuzioan, eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak edo energia berriztagarriko bestelako sistemak instalatuak dituzten subjektu pasiboendako.

Subjektu pasiboek hobaria izanen dute zergaren kuotan, ordenantza honetan araututako baldintzen arabera, baldin eta beren ohiko bizilekuan eguzki-energiaren bidezko edo beste energia berriztagarri batzuen bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu badira, jabetza horizontal edo kolektiboko araubideko eraikinetan autokontsumo kolektibokoak direnak barne. Inbertsioak, gutxienez, 2.000,00 eurokoa izan behar du (higiezin edo bizilagun bakoitzeko).

2.3. Ohiko etxebizitzaren titular gisa subjektu pasibo bat baino gehiago baldin badago, hobaria soil-soilik aplikatuko da bakoitzari dagokion titulartasun-portzentajearen arabera.

2.4. Hobaria zer ohiko etxebizitzarako eskatu den, han erroldatuta egon beharko dute hobaria eskatu duten subjektu pasiboek eta familia-unitateko kideek. Gainera, etxebizitzaren titularrak erroldaturik egon beharko du etenik gabe hobaria egin beharreko urtearen aurrekoaren urtarilaren 1etik.

2.5. Erroldatutako ohiko etxebizitzaren helbidea aldatzeak berekin ekarriko du hobaria jasotzeko eskubidea galtzea hurrengo zergaldirako, eta higiezin berrirako eskatu beharko da, egokitzen ahal bazaio.

2.6. Subjektu pasiboek ezin dute zorrik izan Berriobeitiko Udalarekin.

2.7. Hobaria aplikatzeko, baldintza izanen da gehienez ere bost urte igaro izana udalerriko balorazio txosten osoa onetsi zenetik edo azken berrikuspena egin zenetik.

2.8. Hobari hauek eskatzen dituzten subjektu pasiboek ezin izanen dute %100eko titulartasuna eduki etxebizitza batean baino gehiagoan.

3. artikulua. Hobaria kalkulatzea.

3.1. Hobaria soil-soilik aplikatuko zaio subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzari, eta haren barnean soilik aplikatuko zaio etxebizitzari dagokion zergaren zatia, eta hobaritik kanpo geratuko da higiezinaren beste elementu batzuei aplikatu beharreko kuota, hala nola garaje eta trastelekuei, edo lorategi, ataripe, zoladura eta abarri.

3.2. Hobaria familia ugariendako, guraso bakarreko familiendako eta kotizazio gabeko pentsioak errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutenendako.

Subjektu pasiboek zergaren kuotaren %90era arteko hobaria izanen dute, jarraian ageri den koadroan ezarritako errenta-tarteen eta hobari-portzentajeen arabera. Hobariaren zenbatekoa, gehienez, 175,00 eurokoa izanen da, etxebizitzaren urteko kuotaren gainean. Etxebizitzak titular bat baino gehiago baldin badu, gehieneko zenbateko hori modu proportzionalean aplikatuko da titularren artean.

Ikus taula osoa

ERRENTA-TARTEA (URTEKO PER CAPITA ERRENTA)	HOBARIA
< 8.000 euro	%90
8.001-12.000 euro	%60
12.001-18.000 euro	%30
18.001-22.000 euro	%20

Berriobeitiko Udalaren osoko bilkurak erabakiko ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, hobari horien alderdi funtsezkoetan egin beharreko zehaztapenak edo aldaketak. Erabaki hori hartuko du dagokion ekitaldirako zerga-tasak, tasak eta prezio publikoak onestearekin batera.

3.3. Hobaria, instalatzeagatik energia berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak.

Subjektu pasiboek zergaren kuotaren %50era arteko hobaria izanen dute, jarraian ageri den koadroan ezarritako errenta-tarteen eta hobari-portzentajeen arabera. Hobariaren zenbatekoa, gehienez, 175,00 eurokoa izanen da, etxebizitzaren urteko kuotaren gainean. Etxebizitzak titular bat baino gehiago baldin badu, gehieneko zenbateko hori modu proportzionalean aplikatuko da titularren artean.

Ikus taula osoa

ERRENTA-TARTEA (URTEKO PER CAPITA ERRENTA)	HOBARIA
< 8.000 euro	%50

8.001-12.000 euro	%40
12.001-18.000 euro	%30
18.001-22.000 euro	%20

Hobari hori aplikatuko zaio sistema instalatua duen eta familia-unitatearen ohiko etxebizitza den hiri-unitateari soilik.

Hobari horren aplikaziorako, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan egotea administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak.

Hobari hori eskatu egin behar da, eta titular bakoitzak higiezin baterako soilik erabiltzen ahalko du, eta eskatzen den ekitaldi beretik aplikatuko da, baldin eta betetzen badira zergaren sortzapean egunean aitortua izateko baldintzak, eta eskaera egiten bada likidazioa irmoa eta onartua izan aurretik. Hobaria 5 urtez jarraian aplikatuko da, eta indarraldia zenbatzen hasiko da eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemen instalazioa amaitzen den egunetik aurrera.

3.4. Hobarien portzentajeak, esan bezala, per capita errentaren arabera kalkulatu dira. Per capita errenta, orobat, familia-unitatean diru-sarrerak kontuan hartuta kalkulatu da (urteko PFEZaren aitortpeneko 507 + 8810 + 8808-708 laukitxoak) / familia-unitatearen kide kopurua). Hobaria kalkulatzeko, aintzat hartuko da indarrean den PFEZaren gaineko araudian xedatutako familia-unitatea.

3.5. Hobari hauek aplikatzeko, subjektu pasiboaren errentak ezin dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata halako lautik gorakoak, familia-unitatearen osaera edozein dela ere (ez dira kontuan hartuko errenta salbuetsiak).

4. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak.

4.1. Interesdunek urtero aurkeztu beharko dute eskabidea edo erantzukizunpeko adierazpena, egoitza elektronikoaren bidez, horretarako erabiliz Udalak finkatutako eredua. Hobaria zer urterako eskatzen den, urte horretako urtarilean aurkeztu beharko dute. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

4.2. Ohiko etxebizitzarako hobaria eskatzen duten subjektu pasiboak baldin badira familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren titularrak edo baldin badaude gurasobakartasun egoeran, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide edo erantzukizunpeko adierazpen sinatua, adierazten duena familia-unitatearen ohiko bizilekua dela kasuan kasuko etxebizitza, alegia, eskatzen den hobariaren xedeko hiri-unitatea, bizitegi-erabilerakoa.

b) Administrazio eskudunak emandako ziurtagiria, titulua edo txartel ofiziala, ziurtatzen duena subjektu pasiboa dela familia ugari baten titularra, edo guraso bakarreko familia batena.

c) Familia-unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia edo, bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, eskatzaileak aurkeztuko du familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko deklarazioa, agiri bidez frogaturik.

4.3. Ohiko etxebizitzarako hobaria eskatzen duten subjektu pasiboek jasotzen badituzte pentsio ez-kontributiboak, errenta bermatuak edo bizitzeko gutxieneko errentak, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide edo erantzukizunpeko adierazpen sinatua, adierazten duena familia-unitatearen ohiko bizilekua dela kasuan kasuko etxebizitza, alegia, eskatzen den hobariaren xedeko hiri-unitatea, bizitegi-erabilerakoa.

b) Familia-unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia edo, bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, eskatzaileak aurkeztuko du familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko deklarazioa, agiri bidez frogaturik.

4.4. Energia berriztagarrien aprobetxamendu termikorako sistemak instalatuak dituen etxebizitzarako hobaria eskatzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide edo erantzukizunpeko adierazpen sinatua, adierazten duena familia-unitatearen ohiko bizilekua dela kasuan kasuko etxebizitza, alegia, eskatzen den hobariaren xedeko hiri-unitatea, bizitegi-erabilerakoa.

b) Familia-unitateko kide guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren edo aitortpenen fotokopia edo, bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako egitera behartuta. Bestela, eskatzaileak aurkeztuko du familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko deklarazioa, agiri bidez frogaturik.

c) Sistema horiek ohiko bizilekuan instalatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa, inbertsioaren zenbatekoa zehaztuta. Orobat egiaztatu beharko da instalazio horiek dagokien udal-lizentzia dutela edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dela.

d) Berribeiteko Udalarendako baimena, subjektu pasiboen datuak kontsultatu ahal izateko ogasunaren eta industriaren alorretan eskumena duten administrazioetan.

e) Autokontsumo kolektiboko instalazioen kasuan, banaketarako akordioa, jabe guztiek sinatua. Berriaz adierazi beharko dira honako datu hauek: higiezinaren helbidea, horniduraren HPKUak eta banaketa-koefizientea.

f) Ez da hobaria aplikatuko energia berriztagarrien aprobetxamendurako sistemak instalatzea derrigorrezkoa denean arloko araudi espezifikoren arabera.

4.5. Bi kasuetan, hobaria eskatzen duten subjektu pasiboak ez daude behartuta aurkeztera jada Berribeiteko Udalaren eskuetan dauden agiriak. Dena den, horren berri eman beharko dute eskabidean, eta adierazi zer prozeduratan aurkeztu zituzten.

5. artikulua. Hobaria ematea.

5.1. Hobari hori baliatzeko, Udalak aldeztu behar du. Hain zuzen, hobaria zer urterako eskatzen den, urte horretako urtarilaren 1etik 31ra arte aurkeztutako eskaerak ebatziko ditu dagokion urteko lehen hiruhilekoan.

5.2. Hobaria zer ekitalditarako eman den, ekitaldi horretarako soilik balioko du. Edonola ere, hobaria emateko baldintza izanen da zergaren sortzapen-egunean (hobaria aplikatuko den urteko urtarilaren 1a, alegia) betetzea ezarritako baldintza guztiak.

5.3. Hobaria aitortua duten subjektu pasiboek Berriobeitiko Udalari komunikatu beharko diote gorabehera oro, baldin eta horrek eragina badu hobari fiskala emateko eta hartaz baliatzeko baldintzetan.

5.4. Hobaria kudeatzen duen unitateak egiaztatzen ahalko du betetzen direla onura fiskal hori emateko eskatzen diren baldintza guztiak.

Hobari hori baliatzeko aldian udal-zerbitzuek egiaztatzen badute aldatu egin dela hobariak baliatzeko edozein inguruabar edo betekizun, eta horiek ez zitzaizkiola behar bezala komunikatu Udalari, dagokion espedienteak hasiko da ofizioz, subjektu pasiboaren zerga-egoera erregularizatzeko eta, hala badagokio, hobaridun zenbatekoak eskatzeko, legezko errekargu eta interesekin batera.

6. artikulua. Bateriaezintasuna eta analogia.

6.1. Zerga honengatik hobaria jasotzea bateraezina da zerga bereko beste edozein hobarirekin.

6.2. Ez da analogiarik onartuko zerga-egitatearen eremua edo hobariena bere horretatik harago eramateko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.—Ordenantza honetan berariaz arautzen ez den orotan, aplikatuko dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Bigarrena.—Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzen edo indargabetzen den arte. Ordenantza fiskal hau zati batean aldatuz gero, aldatzen ez diren artikulak indarrean izanen dira.

Udalak 2026ko bigarren seihilekoan ebatziko ditu aurkeztutako eskaerak, eta dagokion hobaria aplikatuko du 2026ko lur-ondasunen gaineko kontribuzioaren zergaren bigarren ordainagirian (2026ko azken hiruhilekoan bidaliko da).

Iragarkiarekin kodea: L2610942